

Ginea Bissauko Osasun-Sistema Publikoa
sendotzeko lankidetzeta teknikoa

PROGRAMAREN

BIGARREN URTEAN LEHENETSITAKO ESKU-HARTZE ARLOAK



BARNE- MEDIKUNTZA

Hitzarmena 2022ko ekainean abiarazi zenetik aurrera, barne-medikuntzako espezialista bat egon da urtero osasun-programan. Tokiko osasun-langileekin batera aritu da, laguntza ematen ospitalizazio-solairuan, protokoloak prestatzeko zereginen, trebakuntza jarraituko saioetan, etab. Hitzarmenaren hasieratik hona, hiru espezialistak jardun dute elkar-lan horretan.

Aipatzekoa da protokolo klinikoak sendotu eta proba diagnostikoak zein ohiko tratamenduak estandarizatu direla 2023ko ekainetik 2024ko ekainera bitartean. Aldi berean, oinarriko sendagaiak une oro esku-ragarri zeudela bermatu da, bereziki larrien eta zaurgarrien dauden pazienteentzat.

Osasun-programaren barruan barne-medikuntzan abian jarri den trebakuntza- eta gaikuntza-prozesu egituratuari esker, osasun-langile profesionalak diagnostikoak egiteko eta pazienteak kudeatzeko duten gaitasuna hobetu egin da. Ildo horretan esan beharra dago barne-medikuntzako zerbitzuko sei medikuk trebakuntza-programako 1. maila lortu dutela, eta haietako bik 2. maila ere bai.



■ 1. MAILA ■ 2. MAILA

Trebakuntza-programak hiru mailatan antolatuta daude, profesionalak mailaz maila aurrera egin dezaten beren ezagutza eta gaitasunetan. Trebakuntza egituratua ez da medikuntzako espezialitate bat. Hala eta guztiz ere, maila bakoitzak gero eta ezagutza eta gaitasun konplexuagoak biltzea lortu nahi izan da, egoera kliniko zail samarrak kudeatu ahalko dituztela ziurtatze aldera. Trebakuntza-saio teorikoez gain, trebatzaileek prozesuan diharduten medikuntza-langileen aurrerapenak baliozkotu ditzakete pazienteengandik gertu egiten den lanaren bitartez.

Era berean, aipatu behar da asmari, HTAri eta diabetesari buruzko kontsulta monografikoak kanpo-kontsulten zerbitzuan egiten direla oraindik ere, eta hilean 50 kontsulta izaten dira, batez beste.



↑ Medikuntza-zerbitzuko medikuak torakozentesi hustutzaile bat egiten.



↑ Larrialdietarako zerbitzuko eta barne-medikuntzako medikuntzako trebakuntza-saioa.

LARRIALDIAK

Larrialdietarako zerbitzuari modu jarraituan laguntzen zaio orain ere. Zehatz-mehatz, medikuntza orokorreko eta familia-medikuntzako mediku baten laguntza jaso du hitzarmena abiarazi zenetik, bai eta barne-medikuntzako bi medikurena ere. Adierazi behar da ezen, 2023ko ekainetik 2024ko ekainera arte, nabarmen egin dela aurrera zirkuituetan, eta, orain, kontsultarako, erreanimatzeko eta egonkortzeko aretoak hobeto antolatuta daude.

Kudeaketan laguntzeari dagokionez, zerbitzuarekin lan egiten da, paziente kritikoaren eta tuberkulosia duten pazienteen zirkuituak dinamizatzeko eta, halaber, taldeak antolatzeko. Hartara, txanda bakoitzean kasurik larrienak artatzeko gauza diren medikuntz-langileak daudela ziurtatzeko ahalegina egiten da.

Trebakuntza-saioetan, larrialdietako medikuntza-langileen partaidetza handia da oraindik: haien artean, zortzik 1. maila lortu dute, eta bik, 2. maila.



■ 1. MAILA ■ 2. MAILA

ERIZAINTZA

Erizaintza funtsezkoa da ospitaleak ongi funtzionatzeko. Halarik ere, praktikan zailagoa da, langileen motibazio eskasagatik, trebakuntza-mailagatik, hizkuntza- eta kultura-oztopengatik, medikuen arteko harreman mugatuagatik, ospitaleratuta dauden pazienteen kopuru handi samarragatik, dokumentuen estandarizazio eskasagatik eta lan-errutinengatik.

2024an, 100 orduko trebakuntza-programa bat egin ahal izan da erizaintzako oinarrizko zainketei buruz. Trebakuntza-programa horretan, erizaintzan funtsezkoak diren ezagutzak eta gaitasunak jorratu dira, baita lanerako oinarrizkoak diren dokumentuak ere: historia klinikoa, erregistro-orriak, eboluzioa eta tratamendua, etab. Trebakuntza-programa ez ezik, medikuntzako eta erizaintzako langileen arteko harremana sendotzeko ahalegina egin da, osasun-arretaren ezinbesteko oinarria den aldetik.

Aipatzekoa da 600 arreta-saio egiten direla hilean sendaketa espezializatuen aretoan. Era horretan, ospitaleratuta dauden pazienteen jarraipena egin daiteke, eta, ondoren, kontrol ambulatiora pasatu daitezke. Hari horretatik, arreta berezia jartzen da ultzera kronikoak eta oin diabetikoak dituzten pazienteen kasuetan.



Erizaintzako trebakuntza-saioa larrialdietarako zerbitzuan.

2024an zehar, denbora guztian egon ahal izan gara barne-medikuntzako zerbitzuan eta larrialdietarako zerbitzuan, eta hainbat hilabetez ezagutu ahal izan dugu kirurgiaren solairua, eta zerbitzu horri laguntzeko helburuak definitu. 2025ean zehar, hiru zerbitzuetan etengabe lagundu ahal izatea espero da.





KIRURGIA

Kirurgialarien laguntza eskura egon da hitzarmena abiarazi zenetik aurrera. Alabaina, kirurgialari batek osasun-programan parte hartu ahal izan du epe luzeagoan 2023aren amaieratik aurrera, eta horrek inpaktu handia izan du jardueren inplementazioan.

Hartara, alde batetik, tokiko osasun-langile profesionalen beharretara egokitutako trebakuntza-programa bat egin ahal izan da, eta, horren baitan, sei medikuk 1. maila lortu dute dagoeneko. Horrek esan nahi du oso konplexuak ez diren kirurgiak egin ditzaketela eta ospitaleratuta dauden pazienteak artatu ditzaketela ebakuntzen ostean.




■ 1. MAILA

Eta beste aldetik, kirurgialari bat dagoenez beti, zerbitzuaren kudeaketaren alderdi batzuk hobetu ahal izan dira; esate baterako, programazio kirurgikoa, ebakuntza egin aurreko zirkuituak (anestesia-zerbitzuarekin koordinatuta) eta kontsultak medikuntza-zerbitzuarekin, zerbitzu horretan zainketa aringarriak jasotzen dituzten pazienteen prebalentzia handia baita.

Era berean, kirurgialari pediatriko boluntario bat dago ospitalean, eta, hortaz, kirurgia pediatrikoa trebakuntzan txertatu ahal izan da, Simão Mendes baita kasu pediatriko kirurgikoetan erantzuteko nolabaiteko gaitasuna duen ospitale bakarra. Gisa horretan, tokiko kirurgia-estamentuak funtsezko ezagutzak eta gaitasunak garatzeko aukera egon da, bai helduen, bai haurren patologia kirurgikoan.



Kirurgia-zerbitzuko medikuak ebakuntza bat egiten, kirurgialari kooperantearen ikuskaritzapean.





→ Anestesia-zerbitzuko mediku bat ebakuntza-gelan, mediku anestesista kooperantearen ikuskaritzapean.

ANESTESIA

Zerbitzu hau medikuntza-langile juniorrek soilik osatzen dute. Zerbitzu honetan ez dago jarduneko medikuntza-langile seniorrik, eta, are, zerbitziburua eskarmentu handiko erizain bat da. Hala, zerbitzua-aren antolakuntza-lana bermatuta dago.

Haatik, 2023tik aurrera buru-belarri aritu garen mediku juniorren taldeak hobera egin du eta gaitasunak kualifikatu ditu. Izan ere, mediku anestesista kooperante baten laguntza izan dute azken urtean, eta trebatzen ibili garen sei medikuetatik lauk 1. maila lortu dute jada.

Azpimarratu behar da medikuntza-langile horiek egiten dituztela ebakuntza-gelako guardiak larrialdi kirurgikoei erantzun ahal izateko. Kontua da hiru ebakuntza-geletako (zentrala, amatasuna eta ortopedia) estamentua erizaintzako langileak direla, eta nolabaiteko erresistentzia erakusten dute trebakuntza eta gaikuntza jasotzeko. Aipatu behar da anesthesiako medikuntza-taldea oso koordinatuta dagoela kirurgiako taldearekin programazio kirurgikoari dagokionez. Horren eraginez, programatuta dauden kirurgiak anestesia- eta kirurgia-arloak batera trebatzeko aukera bat dira.



LABORATEGIA

2023ko ekainetik 2024ko ekainera bitarte laborategian egin den lanak biokimikako arloan laguntzea eta kualifikazioa ematea izan du xede neurri handian, zerbitzuak eskari handia duelako.



Lan horri esker, materiala hobeto antolatzen lagundu da, FIFO metodoa (First In, First Out) aplikatu ahal izan da eta laginak astegunaren arabera antolatu dira. Gainera, laneko hainbat prozedura normalizatu bideratu dira, oinarrizko gaietan kualifikatzeko: kalibratzea, kontrolak berrikustea, mantentze-lanak, etab.

Halaber, nabarmendu behar da trebakuntza-saio espezifikoak egin direla biokimikan, eta laborategia antolatzeko kontzeptu orokorrei buruzkoak ere bai;

adibidez, erreaktiboak eta haien kontserbazioari buruzko ezagutzak, biltegiatzea, produktuen iraungipena, mantentze-lanak, kontsumigarriak eta laneko orriak. Zerbitzuburuarekin lotutako kontuak eta materialen zein suntsikorren horniduraren ezegonkortasuna dela eta, zerbitzuko esku-hartzea 2024ko ekainetik aurrera bertan behera uztea erabaki da. Hala eta guztiz ere, harremana arina da orain ere, eta, beraz, larrialdietatik, medikuntzatik eta kirurgiatik eskatzen diren probak kudea daitezke eta jarraipena egin daiteke.



OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD



LANKIDETZARAKO ETA
ELKARTASUNERAKO
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN Y
SOLIDARIDAD



GOVERNO DA
GUINÉ-BISSAU
MINISTÉRIO DA SAÚDE PÚBLICA



Osakidetza
Servicio vasco de Salud

